ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko martxoaren 28a, astelehena • 37 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Alkatetzaren 2022ko martxoaren 14ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdi publikoa egiten baita amiantoa kentzearen kostu ekonomikoak ordaintzeko

DDBN(Identif.): 615746

Bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/615746).

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten adin nagusiko pertsona fisikoak:

1. Diruz lagunduko diren obrak Iruña Okako udalerrian gauzatzea abian den urtean zehar.

2. Eskatzaileak egunean izan behar ditu Iruña Okarekiko zerga betebeharrak.

3. Iruña Okako Udalak eskubidea izango du obrak hirigintza legediaren arabera gauzatzen diren ofizioz egiaztatzeko, eskatutako dirulaguntza bidezkoa den ala ez erabakitzeko.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen xedea da irizpideak ezartzea eta prozedura bat arautzea dirulaguntzak emateko, udalerrian obrak egiten direnean eta amiantoaren ordez beste material batzuk jarri behar direnean edo amiantoa konpondu behar denean, amiantoa enpresa baimenduen bidez kendu beharrak dakartzan kostu ekonomikoak ordaintzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Alkatetzak 2022ko martxoaren 14ko Erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da inolaz ere 6.000 euro baino gehiago izan; kopuru hori 1720.434.000 partidatik ordainduko da.

Jardunaren kostuaren ehuneko 50 lagunduko da diruz, baina eman beharreko zenbatekoa ez da izango inolaz ere 1.000 euro baino gehiago.

Dirulaguntzak esleituko dira eskabideak aurkeztutako hurrenkera kronologikoaren arabera, harik eta aurreikusitako aurrekontu partida amaitu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurtengo abenduaren 31 arte.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide orria; dirulaguntza zer obratarako den adierazi behar da.
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Hondakinak kudeatzen dituen enpresak jaulkitako faktura eta ordaindu izanaren froga-agiria.
- Hondakinen kudeaketaren enpresa egiaztatuaren ziurtagiria.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eskabideak Iruña Okako Udalaren erregistro nagusian aurkeztu behar dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako eran.

Aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazi diren betebeharrak, udal honek interesdunei eskatuko die aurkitutako akatsak 10 egunen barruan zuzendu ditzaten. Horrela egin ezean, eskabidea artxibatu egingo da eta eskatzaileek eskaerari uko egin diotela iritziko da, beste izapiderik gabe.

Iruña Oka, 2022ko martxoaren 17a

Alkate-lehendakaria
MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.03.28 05:51:48 Z